



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	AIXERROTA					KODEA:	2015 - 2016		
ARLOA	HISTORIA						DATA		
MAILA	DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH 4	X	DBHO 1	DBHO 2		

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
<p>-Historia Garaikideko gertaera historiko eta prozesu garrantzitsuenak ezagutzea.</p> <p>-Aro Garaikideko gertaera sozialak bultzatzen dituzten prozesuak eta mekanismoak eta gertaera politiko, ekonomikoa eta kulturalen arteko harremanak ezagutzea, Historiaren ikuspegi zabala eta kritikoa eskuratzeko.</p> <p>-Kultura aniztasunari balioa ematea gainerako kulturekiko tolerantziarako eta errezpetuzko jarrerak izateko.</p> <p>-Gaur egungo gizarteek dituzten arazo larrienak eta ustez horiek eragin dituzten kausa historiko-sozialak aztertzea eta ezagutzea ikasleek ulertzeko gaur egungo arazoak ez direla berriak baizik eta Antzinean sortutakoak.</p> <p>- Historiaren ezaugarriak ikertzeko kontzeptu-tresnak, teknikak eta oinarritzko prozedurak aplikatzea.</p> <p>- Europako erakundeak eta haien antolaketa politiko eta administratiboa ezagutzea eta aztertzea ulertzeko Europar Batasuna zer den</p>	

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	XVIII.mendea: Antzineko Erregimena. Iraultza politikoak (1776-1848). Industria Iraultza. Nazioak eta Inperioak (1850-1914).	Tentsioak eta gatazkak (1914-1939). SESB estatu eredu berria. Faxismoa eta Nazismoa. II Mundu Gerra	Gerra Hotza (1945-1991). Deskolonizazioa. Gerra Hotzaren garaiko Mundua. Gaurko Mundua.

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
<p>Azalpen teorikoak, irakaslearenak, ezinbestekoak.</p> <p>Eztabaidak bultzatu, ahozko adierazpenari tarte zabala eskainiz.</p> <p>Euren partaidetza bultzatzeko bide aktiboak eta deduktiboa erabiliz, testuak irakurtzen eta interpretatzen erakutsi.</p> <p>Oinarritzko kontzeptuak eta eskemak landu banaka zein taldeka.</p> <p>IKT -ren teknikak erabiliko ditugu gaiak garatzerakoan: power point, dokumentalak, eskemak ...</p>	

4	BALIABIDEAK
<p>Mapa mutuak eta idatziak.</p> <p>Prentsa artikulak.</p> <p>Testu historikoak. Dokumentalak, Filmeak, DVDak, CDromak, interneta, etab</p>	
<p>TESTU LIBURUA: (zertarako erabiltzen den argitu) ARGITALETXEA:</p> <p>HISTORIA 4DBH EUSKADI Azalpenen ardatza eta oinarri ZUBIA SANTILLANA</p> <p>moduan erabiltzen dugu. Bertan agertzen diren ariketak eta</p> <p>testuak lantzen ditugu.</p>	



5

**EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK,
EBALUAZTZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK**
Ebaluazio irizpideak:

Prozesu historikoak adierazgarrienak eta gertaerak garrantzizkoenak denboran eta espazioan kokatzea . Gertaerak eta prozesu historikoa adierazgarrien arrazoiak eta ondorioak identifikatzea, horien areko lotura eginez eta gizarte gertaeren kasualitateen aniztasunaz jabetuta.

Europar gertatu ziren eraldaketak aipatzea, antzinako erregimeneko ezaugarri sozial, ekonomiko eta politikoa oinarri hartuta.

Industrializazio eta modernizazio ekonomikoko prozesuen eta iraultza liberalen burgesen ezaugarri nagusiak identifikatzea, eta ekarritako aldaketak ezagutzea.

XIX. mendean Europako herrialdeek izan zuten nagusitasun politikoaren eta ekonomikoaren arrazoiak azaltzea, eta nazioartean nahiz eta estatu barnean urte haietan agertutako gatazkak eta arazoak aipatzea. XX. mendean, munduan gertatu diren eraldaketak eta gatazka handiak denboran eta espazioan kokatzea, eta ezagutza hori gaur egungo nazioarteko arazo larrienetako batzuk ulertzeko erabiltzea.

Gaur egungo munduan dauden tentsio politiko eta sozialaren fokuari buruzko lana egitea, banaka edo taldeka. Aurrekari historikoak eta kausak aztertzea.

Kalifikazio irizpideak

Idatzizko azalpenetan zein ahozkoetan Euskarazko ADIERAZPENA ULERGARRIA IZATEA ETA BERARIAZKO HIZTEGIAREN ERABILERA MENPERATZEA.

Irakasleak agintzen dituen lanak eta ariketak egunean egin beharko dira. Edozein momentutan, ikasleari koaderno eskatzen bazaio aurkeztu beharko du. Klaserako eta etxerako ariketak ezinbestekoak dira.

Kurtsoan zehar egindako lanak baloratuko ditugu.

Ebaluazioan edota ikasturte amaieran eta notekin zalantzan egotekotan , lanak erabakigarri bihurtzen dira. Klasera etortzea derrigorrezkoa da. Ez-etortzeak ez du ikaslea etxerako lanak egiterik libratzen, galdetzea zer den irakasleak agindu duena bere ardura da eta.

Ardatzak: Azterketa guztietan kontzeptuak eta prozedurak baloratuko dira.

Azterketak: Gutxienez bi azterketa ebaluazio bakoitzean. Azterketetan galdera teorikoak , definizioak, eta prozedurazkoak izango dira, baina nota bakarra eginda.

Kalifikazioa: Zenbaki bakarrekota nota izan arren, bertan kontuan izango ditugu:

Eduki Kontzeptualak eta prozedurazko edukiak : %90a balioko dute. Hau baloratzeko idatzizko frogak eta ebaluazioan zehar egindako lanak erabiliko ditugu.

Jarrera: % 10a emango diogu. Etxerako lanak ez egiteak penalizazioa ekarriko du.

Ebaluazioan egindako azterketetan aterako noten artean batz bestekoa egingo da, baina horretarako frogak bakoitzean 9tik gutxienez 3 puntu ateratzea ezinbestekoa da. Ebaluazio bateko lehenengo azterketan 3 baino gutxiago ateratzen duenak gainditzeko aukera izango du: materia guztia egin beharko du bigarren azterketan eta frogak horretan lortutako nota batz bestekotzat hartuko da.

Ebaluazioko nota 5 baino gutxiagokoa izanez gero, ikasleak ebaluazio osoko berreskurapena egin beharko du.

6

BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

Suspentso altua duten ikasleek (4,5 edo gehiago) laguntza neurriak egin beharko dituzte. Ebaluazioko nota baxuagoa bada, ikasleek berreskurapen azterketa egin beharko dute. Froga horretan, ebaluazioan sartutako materia osoa eskatuko zaie. Zalantza egotekotan, irakasleak ikaslearen koaderno begiratu du.

Ikasturtearen amaieran (3. ebaluazioan) ebaluazio guztiak gainditu ez dituztenentzat, azterketa global bat egingo dugu. Bertan ebaluazio bakarria suspendituta daukatenek ebaluazio horri dagokion azterketa egingo dute eta bi edo hiru ebaluazio gainditu gabe dutenek materia osoari buruzko azterketa egin beharko dute.

Ez-ohiko azterketa bakarria eta globala izango da.



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
Hezkuntzako Ikuskaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Inspección de Educación